

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 5koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Lanen baimen-arloko arduradun lanpostuak betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahaiko kideak izendatzen dituena.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2019ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko IRAGARKIA argitaratu zen 2019ko ekainaren 17ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 113. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoko eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoko Lanen baimen-arloko arduradun lanpostuak.

Uraren Euskal Agentziako Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoko eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoko Lanen baimen-arloko arduradun lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko du prozesua.

Horiek guztiak horrela,


ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Uraren Euskal Agentziaren Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoko Bulegoko eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoko Lanen baimen-arloko arduradunak hautatzeko prozesuko Kalifikazio-Epaimahaiko kideen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Presidentea	Josu Perea Arandia (Uraren Euskal Agentzia)	Javier Agirre Orcajo (Uraren Euskal Agentzia)
Mahaikidea	Jose M ^a Sanz de Galdeano Equiza (Uraren Euskal Agentzia)	Iñaki Arrate Jorrín (Uraren Euskal Agentzia)
Idazkaria	María López de Heredia (Uraren Euskal Agentzia)	M ^a Teresa Mena Aguilar (Uraren Euskal Agentzia)

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta Campo y Ochandiano kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.campo-ochandiano.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 5a.



Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta

Zuzendari nagusia

Uraren Euskal Agentzia